

Guk uste dugun baino indartsuagoa da euskara

Aurten ikasturtea hasi berri dugu eta honako hau proposatu digute hirugarren mailakoei Lauaizeta ikastetxeko euskara klasean: “Breizheuskadi” proiektua garatzeko, euskarari buruz zenbait datu pilatuko ditugu honek duen garrantziaz jabetzeko.

BREIZHEUSKADI PROIEKTUA:


Lauaizeta ikastetxean frantsesa ikasi daiteke, eta hirugarren mailan frantsesen eta gure artean truke bat egiten da urtero; aurten, Britainiako ikasleekin egingo dugu trukea, eta haiek hizkuntza gutxitu bat hitz egiten dute, bretoiera eta guk, aldiz, euskara. Beraz, euskarari buruz hitz egingo dut idazlan honetan, geroago haiei aurkezteko.

EUSKARAREN JATORRIA:

Euskararen jatorria ez da zehatza, hona emen teoria batzuk:

<https://www.hiru.eus/eu/lengua-vasca/teorias-sobre-el-origen-del-euskara>

HIZKUNTZA GAITASUNA eta KALE-ERABILERA:




Iturria:

- Soziolinguistika klusterrak bildutako datuak.
- Euskararen datu basetik guk jasoak
-

MUNDUKO MAPA KOLORETSUA

Munduan 7.000 hizkuntza daude, eta behean dagoen mapak dituen koloreak

hizkuntza ofizialak aurkezten dizkigu; gehien hitz egiten diren hizkuntzak honako hauek dira: lehenengo postuan, txinera, jarraian hindua, ondoren, gaztelera, hurrena ingelera eta azkenik arabiera.



Hizkuntzen mapa eta mapa politikoa ez datoz bat, badaudelako hitz egiten diren hizkuntza ofizialak toki batean baino gehiagotan hitz egiten direnak.

Honela jakin dezakegu hizkuntza guztiek ez dutela garrantzi berdina munduan, bakarrik gehien hitz egiten direnek dute garrantzi gehiena. Baina denek eduki beharko lukete.

ESKALAREN JOKOA:

Munduan 7.000 hizkuntza daude. gehien hitz egiten dena, 10. postuan dagoena, txinera da eta 0. postuan, berriz, bertan azken hiztuna galdu duen hizkuntza. Hori kontuan izanik, otik 10erako eskala batean, eta 7.000 hizkuntza horien artean, hitzuk kopuruaren arabera, non kokatuko zenuke euskara?

Seguru aski, 4. edo 5.postuan kokatuko zenuke, baina Euskara munduan hitzun

gehien dituzten hizkuntzen %10en artean dago.

Nola liteke hori?

100.000 inguru euskal hiztun bizi gara:

-EAEn 790.000

-Nafarroan 75.000

-Ipar EHn 57.000

-Horrez gain, kanpoan bizi eta euskara badakitenak.

Ethnologue-en arabera, 400 hizkuntza daude milioi bat hiztun dituztenak, eta horien artean, euskara dago.

Beraz datu hauek kontuan izanda, euskara 9tik gora kokatuko genuke, otik 10erako eskala batean.

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

Kike Amonarrizek egindako bideoaren esteka:

<http://www.eimakatalogoa.eus/20962/tribuarenberbak/05-jarduera.html>

ZERGATIK IKUSTEN DUGU GEURE BURUA HORREN TXIKI?

Alde batetik, Euskal Herria txikia da eta biztanle gutxi ditu. Gainera, inguruan ditugun beste hizkuntzak indartsuagoak dira eta gehiago hitz egiten dira (ingelesa, frantsesa, gaztelera...). Dakien jendeak ere ez du gehiegi bultzatzen eta Euskal herriko biztanleria txikia izanik, gehiengo batek erdarak hitz egiten ditu. Ondorioz, munduan 7.000 hizkuntza izanik, euskara oso txikia ikusten dugu.

CALVET BAROMETROA

Calvet soziolinguista frantsesak sortu zuen neurtresna hau, hizkuntzen bizi-indarra neurtzeko balio duena, hain zuzen ere. 563 hizkuntza aztertu zituen, eta, horien artean, euskara 51. postuan kokatu zuen,

mazedoniera eta letonieraren artean. Hizkuntzak 11 aldagairen arabera baloratzen ditu, hala nola:

hiztun kopurua, entropia (silaba kopuruaren arabera ematen den informazio kantitatea), ama hizkuntza duen pertsona kopurua, izaera ofiziala duen herrialde kopurua, itzulpen kopurua... esate baterako, Wikipedian, 160.000 artikulua daude esukaraz eta horren arabera 35. postuan legoke.

EUSKARAREN EGOERA UNESCOREN ARABERA

UNESCO-k desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak sailkatu ditu, koloreen arabera:

- 🟡 zaugarria
- 🟠 arriskuan
- 🔴 arrisku nabarmena
- 🟢 arrisku larria
- ⚫ desagertua

Zer aztertu du UNESCOk koloreka sailkapen hori egiteko?

Itziar Idiazabal, EHuko irakasleak dioenez, belaunaldien arteko transmisioa ziutatuta egon behar da. Tamalez, Ipar Euskal Herrian, nahiz eta bi gurasoak euskaldunak izan, ez da ziurtatzen. Hegoaldean berriz, egoera hobea da; bi guraso euskaldunak direnean transmisioa % 100-ekoa da eta gurasoetako bat euskalduna izatea nahikoa da % 80-ko transmisioa ziurtatzeko.

NOLA ATERA ARMAIRUTIK 500.000 EUSKALDUN?

Munduan 750.000 euskaldun omen daude, baina horien artean ez dira 200.000ora iristen euskal kultura kontsumitzen dutenak, alegia, 1/4 batek besterik ez. Orduan, lagungarria litzateke,

gainontzeko hitzunik ere ekimenez
jokatzea euskararen alde.

Nola, ordea?

- Gutxienez, urtean euskarazko liburu bat irakurri.
- Igandean Berria eta Argia egunkariak irakurri
- Antzerki bat ikustera joan
- Lehenetsi ETB1 zure telebista programatzerakoan
- “Badok” App-a deskargatu eta euskal musika ezagutu.

ETA ZER IKASI DUT NIK HONEKIN?

Hausnarketa bat egin beharrean gaudela uste dut. Uste baino egoera osasungarriagoa dauka euskarak datuen arabera, baina jarrera aldatu beharko genuke eta ekimenez euskal kultura ondarea ezagutzen hasi. Gainera, hizkuntzaren aldeko jarrera gure esku dago. Joera, beti erdararen aldekoa izaten delako.